

BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA KALEKO TALO-SALMENTARAKO POSTU BIREN ENKANTEA EGITEKO 2015eko KARMENGO JAIETAN

1.- BAIMENAREN HELBURUA.-

a).- Plegu honen xedea 2015eko Karmengo jaietan jabari publikoko lursailetan kaleko talo-salmentarako postuak jartzeko baimena jasotzea da, Udaletxeko Bilkura Aretoan egingo den enkantearen bidez.

b) Esleipendunari okupazioaren baimena behin emanda, guztiz debekatuta dago baimena besterentzea. Arau hau ez betetzeak instalazioa ixtea ekarriko du, bai eta araua hautsi duen esleipendunaren baimena iraungitzea ere. Arau hauek hausten dituen esleipendunak baimena jasotzeko beste deialdi batzuetan parte hartzeko aukera galduko du, eta horrez gain, ordaindu beharko ditu indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen zehapenak.

c) Lurzoruak okupatzeko baimena epe jakin baterako da, eta ez du hurrengo edizioetarako lurzoruaren gaineko eskubiderik ematen.

d).- Lizitatzailleek eta postuen esleipendunek, enkantean parte hartze hutsagatik, erabateko adostasuna adierazten dute Plegu honetako oinarri guztiekin.

2.- LEGITIMAZIOAK ETA BALDINTZAK.-

Legez osatutako ahalmen juridiko eta jarduteko ahalmen osoa duten janari-saltzaile guztiak izan ahal izango dira janaria saltzeko postuak okupatzeko esleipendunak, betiere hurrengo baldintza hauek betetzen badituzte:

1.- Adinez nagusia izatea. Lan egiteko adinez nagusia izatea onartzen da.

2.- Legez ezartzen diren ezgaitasun edo bateraezintasun kasuetako batean ere ez egotea.

3.- Jarduera Ekonomikoaren gaineko zergari dagozkion epigrafeetan izena emanda egotea eta horien ordainketetan zordun ez egotea.

4.- Gizarte Segurantzari dagokion erregimenean izena emanda egotea eta kuotaren ordainketetan zordun ez egotea. Pertsona juridikoen kasuetan, enpresa gisa izena emanda egotea Gizarte Segurantzari, langileak afiliatuta izatea eta kuoten ordainketetan zordun ez egotea.

5.- Emakida-prozesu honetan gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek hartu ahal izango dute parte eta esleipenaren ondoren 2 azokatan parte hartu izana frogatu beharko dute, gutxienez 10 urtean 2 eguneko egonaldiaren bidez.

6.- Saldu beharreko produktu eta instalazioei dagozkien arauak ezartzen dituzten baldintza higieniko-sanitarioak edo bestelakoak betetzea, eta bereziki horrelako produktuak maneiatzeko beharrezkoa den titulazioa izatea.

7.- Dagozkion zergak eta ordainarazpenak ordaintzea.

8.- Atzerritarren kasuan, dagozkion bizileku- eta lan-baimenak jaso dituztelako egiaztagiria edo berton bizi eta lan egiteko gaitzen duten beste edozein agiri izatea.

9.- Jarduera egiteagatik sor daitekeen arriskua barne hartzen duen erantzukizun zibileko aseguru izatea.

Eurek berek egin ahal izango dute edo baimendutako pertsonak, berariaz emandako ahalorde nahikoaren bidez. Pertsona juridiko baten ordez beraren senideren batek parte hartzen badu, agirien bidez egiaztatu beharko du horretarako ahalmena duela. Batean zein bestean, ordezkariari aipatutako kontratatzeke ezgaitasun arrazoiek eragingo diote.

Nolanahi ere, bete beharko da zerga-araudian, Gizarte Segurantzaren araudian, baliokideak diren Europar Batasuneko estatu-kideetako araudietan eta aplikatu beharreko guztietan ezarritakoa.

Baimenak indarrean dirauen bitartean aipatutako edozein baldintza galtzeak baimena baliogabetzea ekarriko du.

3.- POSTU MOTAK ETA KOPURUA

Plegu honen bidez bost postu esleituko dira kalean alde aurretik prestatutako janaria saltzeko 2014ko Karmengo Jaietako festa-gunean. Horien kokapena 1. eranskinean sartutako planoan ezarriko da.

Postuek hurrengo neurri hauek izango dituzte:

1 Postua: 8 x 6

2 Postua: 8 x 6

Postuak taloak saltzeko izango dira, baina ogitartekoak saltzea baimenduta egongo da. Hurrengo edariak soilik izan ahal izango dituzte salgai: garagardoa, sagardoa, ardoa, freskagarriak eta ura, katxiak saltzea guztiz debekatuta izanik.

Postu hauek kokaleku zehatza izango dute, baina desmuntagarriak eta garraiatzen errazak izango dira eta segurtasun, osasungarritasun eta egokitasun publikoko baldintzak izan beharko dituzte; halaber, betetzeko gehiengo neurriak eta ezarritako ordutegiak gorde behar izango dituzte postuek.

Publikoari janaria saltzeko ordutegia honakoa izango da: ostiral, larunbat eta jai bezperetan 10:00etatik 04:30era eta gainontzekoetan 03:00etara

4ª.- LIZITAZIORAKO OINARRIZKO TIPOA.-

Talo-postuak jarriko diren tokiak enkantean jarriko dira, lursailak okupatzeagatikotasak gisa. Postuentzako lizitazioaren oinarritzko tasa hurrengoak dira:

1 Postua: 5.000 €

2 Postua: 5.000 €

5.- PARTE HARTZEKO ESKABIDEA ETA HASIERAKO DOKUMENTAZIOA

A) Enkantean parte hartzeko Santurtziko Udaletxean eskabidea aurkeztu beharko dute, bertan 2015eko Karmengo Jaietan talo-postuen enkantean parte hartzeko asmoa agertuz. Eskabide orrian helbide elektronikoa eman beharko da jakinarazpenak egite aldera, bai eta bulego-ordutegian deitzeko telefono zenbaki bat ere.

B) Eskabidearekin batera, parte hartzailearen edo bere izenean jardungo duenaren Nortasun Agiriaren fotokopia edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakia aurkeztu beharko dira, bai eta 10 urtetan gutxienez 2 egunez 5 feriatan parte hartu izanaren egiaztatzea ere.

C) Eskabide orriak aurkezteko epea 2015eko maiatzaren 5etik 15era izango da, biak barne.

6.- DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA ETA ENKANTERAKO DEIALDIA

6.1.- Dokumentazioaren kalifikazioa eta deialdia

Eskabideak aurkezteko epea behin amaituta, lizitazio mahaia osatuko da, zeinek aurkeztutako agiriak kalifikatuko dituen.

Aurkeztutako dokumentazioan mahaikideek zuzendu beharreko akats edo gabeziarik ikusiko balute, Obra eta Zerbitzu Arloak interesdunei jakinaraziko die (ahal dela *telefonoz*) eta dokumentazioa entregatzeko epea amaitzen denetik gehienez 4 laneguneko epea emango zaie zuzen ditzaten.

Eskatutakoa ez balitz adierazitako epean zuzenduko, interesdunak enkantean parte hartzeko eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko da.

Taloen salmentarako postuak baldintzak bete eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu duten eskatzaile onartutakoen artean egingo da 2015eko maiatzaren 22an, 10,30ean Santurtziko Udaletxeko Bilkura Aretoan.

5.- LIZITAZIO PROZEDURA

5.1- Aurkezpena

Taloak saltzeko postuak Santurtziko Udaletxeko Bilkura Aretoan 2014ko ekainaren 17an, 10:30ean, egingo den enkante publikoan esleituko dira.

Lizitatzailleek enkantera parte hartzen duenaren edo ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionala edo Atzerritarraren Identifikazio-zenbakiaren originala edo fotokopia egiaztatua eraman behar dute.

5.2. Kontratazio Mahaia

Kontratazio-mahaiaren osaketa hurrengo hau izango da:

Burua: Obra eta Zerbitzu Arloko zinegotzi eskuordetua.

Bokalak: Udal Zerbitzu Publikoetako Burua edo funtzio horretarako eskuordetuta dagoen funtzionarioa, Funtza Kontu Hartzailea edo azken honen funtzioa egiteko eskuordetuta dagoen funtzionarioa

Idazkaria: Obra eta Zerbitzu Arloko funtzionarioa

7.- ENKANTEA.-

Enkante-ekitaldia behin mahaia osatuta egingo da eta berau hasiko da, aktan jasota geratuko delarik.

Enkante-ekintzak bereziak izango dira eta denboran hurrenez hurrengoak eta postu-hurrenkeraren ordena plegu honetako I. Eranskineko 3. puntuan ezarritakoa izango da

Talo-postuen enkantea betegabetzat joko da, gehikadarik aurkezten ez bada edo egindako eskaintza ezarritako hasierako prezioa baino txikiagoa bada.

Lizitazioan onartu, plegu honetan ezarritako baldintzak bete eta eskatutako dokumentazioa aurkezten duten lizitatzaille edo horien legezko ordezkariekin emango zaio hasiera enkanteari gehikada lauen bidez, eskatzaileak edo horien legezko ordezkariak aretoan daudela.

Gehikadak goraka izango dira, oinarritzat jarritakoa baino txikiagoa den prezioa onartuko ez delarik

Gutxiengo gehikadak EHUN eurokoa izango dira, irteera prezioen gainean.

Proposatutako esleipendunak postuari uko egingo balio gutun-azalak zabaltzeko ekintzan edo horren ostean baina esleipena burutu baino lehen, proposatuko litzateke postu horri dagokion bigarren eskaintza hoberena egin duenari esleitzea.

Postu bakoitza pertsona fisiko edo juridiko bakarrari esleituko zaio eta lizitatzailerik bakoitzari talo-postu bakarra esleitu ahal izango zaio.

8.- ESLEIPENA ETA PREZIOA ORDAINTZEA

Enkante-mahaiak Obra eta Zerbitzuetako Zinegotzi eskuordetuari jasotako akta eta esleipen-proposamena igorriko dizkio. Esleipena Zinegotzi Eskuordetuaren Dekretuaren bidez egingo da dokumentazioa jaso eta hurrengo 5 egunetan.

Esleipena arrazoitua izango da, eta lizitatzailerik jakinaraziko zaie. Esleipenaren jakinarazpenak SPKL-Tbren 151.4 artikuluko alderdiak izango ditu eta igortzeko, jasotzailerik jaso izanaren lekukotasuna ematen duten bideetako edozein izan daiteke, bereziki, lizitatzailerik eskaintzak aurkeztean emandako posta elektronikoaren bidez.

Enkantearen prezioa Udal Diruzaintzan ingresatu beharko da, dirua udaletxearen kontuan sartuz, baimenaren esleipena egin aurretik 5 egun balioduneko epean enkantearen biharamunean zenbatzen hasita. Diru-sarrera hori ezinbesteko baldintza izango da baimena emateko, diru-sarrera ez bada adierazitako epearen barruan egiten, eskubidea iraungitzat hartuko delarik.

9.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA ESLEIPEN PROPOSAMENAK

A).- Enkantearen ostean esleipendunek Obra eta Zerbitzuetako Arloan, 5 egun balioduneko epean, enkantea egin den egunean hasita, hurrengo dokumentuak aurkeztu behar izango dituzte eta jarraian azaltzen diren jarduerak burutu beharko dituzte.

1) Parte hartzailearen edo ordezkariaren NAN edo AIZ agiriaren kopia.

2) Pertsona juridikoak baldin badira, Merkataritza Erregistroan izena emanda daudelako eratzeko edo hala badagokio, aldatzeko eskritura edo dokumentua aurkeztu beharko dute, baldin eta baldintza hau exijitu ahal bada ezarri beharreko merkataritza-legediaren arabera. Ez balitz, bere jarduera arautzen duten arauak dituen eraketa- estatutu edo sortu delako ekintza-agiria aurkeztu beharko dira, dagokien Erregistro Ofizialean izena emanda

Eskatzaile fisikoen kasuan, beste pertsona fisiko bat ordezkatzuz jarduten bada, ordezkariak eskatzailea bera bertaratu eta ordezkaria zein den esanez egiaztatuko da. Pertsona juridikoa bada, berriz, notarioaren agiri nahikoaren bidez egingo da, elkarte eta bestelako erakundeek kasuan izan ezik, baldin eta hauen jarduteko gaitasuna ez bada osaketa-eskritura baten bidez egiaztatu behar, non egiaztatu ahal izango den Erakundearen organo eskudunek beren-beregi horretarako hartutako erabakien bidez, betiere euren Estatutu edo sortzeko ekintzan adierazitakoari jarraituz.

3) Horrez gain erantzukizunezko aitortpena ere erantsiko da, bertan adieraziko dela Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak eta plegu honetan ezarritakoak betetzen direla, bai eta ez duela kontratatzeke debekurik ere, hori guztiori Legegintzako azaroaren 14ko 2011/3 Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginean xedatutakoari jarraituz eta hurrengo honen arabera:

Pertsona fisikoen kasuan:

..... jaun/andreak,ko biztanleak, helbidea duenak, NAN duenak, (edoren izenean,ren bidez egiaztatuta) eta telefono zenbakia duen honek aitortzen du Administrazioarekin kontratazioa egiteko lege ezarrita dauden baldintzak eta plegu honetako baldintza guztiak ere betetzen dituela eta sektore publikoko kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen Azaroaren 14ko 2011/3 Errege Lege Dekretuak ezartzen duenaren arabera ez duela kontratatzeke debekurik.

Espedientea izapidean den bitartean egin beharreko eskaera, komunikazio edo jakinarazpenak hurrengo helbide elektronikora igor daitezke:

(Data eta eskatzailearen sinadura edo bere ordezkariarena, hala badagokio)

Pertsona juridikoen kasuetan:

Ordezkariak, (izen abizenak) jaun/andreak,ko biztanleak, helbidea duenak, NAN duenak etaenpresaren ordezkari gisa (izen soziala),helbidea duena,IFZ eta tel. zk. esleitzeko enkantea arautzen duen baldintza pleguaren jakitun adierazten du Administrazioarekin kontratua egiteko lege ezartzen diren baldintzak eta Plegu honetan azaltzen diren baldintza guztiak betetzen dituela, eta ez berak, ez bere ordezkari gisa jarduten duenak ez dutela kontratatzeke inongo debekurik, Legegintzako azaroaren 14ko 2011/3 Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean xedatutakoari jarraituz.
(data eta ordezkariaren sinadura)

Espedientea izapidean den bitartean egin beharreko eskaera, komunikazio edo jakinarazpenak hurrengo helbide elektronikora igor daitezke:

OHARRA: Baimenaren esleipen-proposamena jasotzen duen lizitatzailerak egiaztatu beharko du, esleipena jaso aurretik, eskatutako agirien jabea dela, bai eta agirion baliozkotasuna ere, eta 5 laneguneko epean aurkeztu beharko ditu, enkante publikoa egiten den ekintzatik zenbatzen hasita, epe horretan sartzen direla eskatutako kaudimen-baldintzen konkurrentzia egiaztatzen dutenak.

Agiriak aipatutako epean entregatu ezean, eta zuzentzeko epea behin igarota, eskaintzari uko egin zaiola ulertuko da, hala badagokio. Horrela gertatuz gero,

esleipena eskaintzetan bigarren onena aurkeztu duen lizitatzaileri proposatuko zaio.

4) Honako baimen hau burutu ahal izateko derrigorrez izan beharreko bitartekoak euren esku dituztela egiaztatzen duen honako dokumentazioa aurkeztea:

- Elikagaiak maneiatzeko txartela edo araubide ezargarriak salmentan jarduten dutenei eskatzen dien titulu baliokidea.
- Bere kargupean langilerik badu, horiekiko lan-harremana zein den egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Eskatzailearen karnet-neurriko 2 argazki, hala badagokio.
- Fotokopia, zeinena-eta, jarduerak atxikita daraman arriskua estaltzen duen erantzukizun zibileko aseguruaren polizarena eta indarraldiaren azken erreziobarena.

Bere ordezkari baimendutako beste batek jardungo badu, eskatzaileak, aurrekoek gain hurrengo agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Famili- edo lan-harremana egiaztatzen duen agiria, lan-harremanaren kasuan alta-agiria eta Gizarte Segurantzaren egindako kotizazioen diru-sarreraren azken errezioba.
- Izendatutakoak baimendutako bere datu pertsonalak: izen-abizenak, helbidea eta telefono-zenbakia.
- NAN edo AIZen fotokopia eta baimendutakoaren karnet neurriko 2 argazki.

5) Alta eta ekonomia-jardueren gaineko zergaren azken ordainagiriaren fotokopia, dagokionean.

6) Gehikadaren zenbatekoa ordaindu izana.

7) Posta elektronikoa eta telefono zenbakia duen oroit txostena aurkeztu, non adieraziko den saldu nahi diren produktu mota eta instalazioaren eta materialen baldintza eta ezaugarriak, honako pleguan adierazitakoarekin bat etorriz.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo omisioak baleude Obra eta Zerbitzuko Arloak interesatuei jakinaraziko die, ahal dela telefonoz, eta gehienez hiru lan egun emango zaie, dokumentazioa aurkezteko epea bukatu eta biharamunean zenbatzen hasita, beroriek zuzentzeko.

Errekerimendua ez bada aipatutako epean betetzen, lizitatzaileri eskaintzari uko egin diola ulertuko da, eta hartara, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileri, eskaintzak sailkatutako hurrenkerari jarraituz.

B) Baldintza hauek oinarritzekoak dira eta beroriek ez betetzeak baimena baliogabetzea ekar lezake.

C) Aurkeztutako agiriren bat faltsua bada jarduera itxi egingo da, gerta litezkeen balizko lege-ekintzei kalterik egin gabe.

10.- BAIMENAREN IRAUPENA-

Baimena 2015eko Karmengo Jaietako ospakizun egunetarako emango da eta beraz, beren-beregi jarduerari ekiteko baimena 2015eko uztailaren 10etik 19ra izango da, ez dela luzatzeko aukerarik egongo.

11.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Taloak kalean saltzeak duen izaera berezia kontuan hartuta, horrelako produktuak egiten diren postuek baldintza higieniko-sanitario zein ezarri beharreko beren-beregiko araudietan ezarritako beste batzuk bete beharko dituzte, eta interesatuak hori guztiori zehatz-mehatz adierazi beharko du baimena eskatzen den unean oroit-txosten tekniko baten bidez. Oroit-txosten horretan adierazi beharko du egin nahi diren produktu-mota, instalazioaren baldintzak eta ezaugarriak, bai eta materialak ere. Janaria furgonetan saltzekotan jakinarazi beharko da deskripzioa eginda, adieraziz ibilgailuak zer nolako prestaera eta dotazioak dauzkan, araudi teknikoen eta sanitarioen alderako.

Titularra eta baimendutakoa, hala badagokie, derrigor gorde beharko dituzte plegu honetan ezarritako baldintza eta mugak. Edonola ere, horrelako produktuak maneiatzeko beharrezkoa den titulazioa izan beharko dute. Esleipendunek ikusgai izango dute publikorako prezioen zerrenda. Horrez gain, kartelak ere ezarriko dituzte, non argi eta garbi azalduko den adin txikikoei alkohola eta tabakoa saltzeko debekua.

Postuek behar bezala funtzionatzeko behar diren argindar-konexioak langile kalifikatuek egin beharko dituzte eta behar bezala babestuta egon beharko dira, publikoaren joan-etorritik urrun, eta edonola ere, 2,5 metro luzeko altuerako bide librea utziko du behe-tentsioko linearaino eta ez du ibilgailuen joan-etorria oztopatuko.

Edonola ere, instalazio-elektrokoari buruzko ziurtagiria aurkeztu beharko dute, eskumena duen administrazioaren ereduaren arabera (Eusko Jaurlaritzako Industria Saila) eta administrazio horrek berak bideratua, bai eta argindarra jasotzeko kontratuaren kopia ere, baldin eta argindarra korrante elektrokoaren sarearen bidez jasotzen bada.

Balizko istripuak ekidite aldera, plantxa elektrokoak, frijigailuak edo postuan egiten den janaria prestatzeko beharrezkoak diren bestelako tresnak babestuta egon beharko dira eta postuen erabiltzaileetatik eta instalazioak dauden pasealekuetan zehar dabilzanetatik urrun.

Debekatuta dago postuak instalatzea, baldin eta bertako jarduerak osasun publikoan arriskua eragiten badu, zarata kirinkariak sortu edo egiten diren ekintzak

indarreko araudiaren aurkakoak badira. Bakar-bakarrik musika jarri ahal izango da, baina postuaren barruan eta ez ozen, bertako langileen gozameneko besterik ez.

Postuen titularrek garbi izan beharko dituzte bai okupazio-gunea, eta bai postuaren perimetroaren inguruan 3 metro sakoneko azalera (koipearen aurkako garbiketa-produktuen bidez), postuaren erabiltzaileei eta hurbileko negozioen titularrei eragozpenik ez eragiteko. Ezin izango dute postu-gunean eta hortik gertu zaramarik bota. Hondakinak festa-gunean jarritako edukiontzietan bota beharko dira, kalterik egin gabe udalarentzat derrigorrezkoa ez den janari-hondakinak kudeatzeko tratamenduari. Horrelakoetan kudeaketa postuaren titularrak hartu beharko du ardura bere gain. Gainera, postuaren ondoan paperontzi pare bat jarri beharko dute, Garbiketari eta Hondakinen Bilketari buruzko ordenantzak dakarrenarekin bat etorriz.

Postuaren ondoan paperontzi pare bat jarri beharko dira, aipatutako Ordenantzan xedatutakoari jarraituz.

Postua ezin izango da itxi.

Baimenak taloak eta ogitartekoak saltzeko aukera emango du eta bakar-bakarrik hurrengo edari hauek: garagardoa, sagardoa, ardoa, freskagarriak eta ura. Guztiz debekatuta dute katxiak saltzea. Plastikozko edalontzi berrerabilgarriak erabiltzea sustatuko da, bai eta beirazko edalontzi edo botillak debekatuko ere.

Edonola ere, Portuko Agintaritzak ezarritako okupazio-baldintzak bete beharko dira.

Ez da inola ere baimenduko okupatutako gune-publikoak manipulatu edota hondatzea ekar lezakeen inongo operaziorik. Horrelakorik gertatuko balitz, dagokion zehapena jarriko litzateke, eta horrez gain postuaren jabeak kaltetutako gune-publikoa konpondu beharko luke, baimena baliogabetuz.

Interes publikoko arrazoiak direla eta (segurtasuna, ordena publikoa, festa jardueraren garapena eta abar) janaria saltzeko xedez okupatu den gune publikoa erabili beharko balitz, baimendutako titularrak egokitu zaion gunea libre utzi eta beste toki bat okupatu beharko du, betiere bideragarria bada eta Udalaren adierazpenei jarraituz. Egoera honek ez du inola ere kalte ordainik jasotzerik ekarriko. Festa-gunean beste toki bat okupatzea ezinezkoa balitz, ordaindutako zerga eta prezioei dagokien partea itzuliko zaio. Hala ere, egoera hauek ez diote inola ere kalte ordainik jasotzeko aukerarik emango.

Udala ez da suteak, zuhaitzen adarrak erortzeak edo beste edozein agente natural batek eragindako kalteen erantzulea izango. Udalak ez du esleipen-zenbatekorik itzuliko eguraldi txarrak eragindako arrazoiengatik.

Jai-gunean eta inguruan ezin izango da inolako kaleko salmenta egin, baimena dutenak izan ezik.

Esleipendunek arestian aipatutako baldintzetako edozein ez betetzeak zehapen-espeditentea abian jartzea eta baimena iraungitzea ekarriko du.

12.- INSTALATZEKO BAIMENA-

Obra eta Zerbitzuetako Sailak, tasak ordaindu direla egiaztatutakoan, identifikazio-txartel bat igorriko du, eta bertan postuaren datu guztiak adieraziko dira. Esleipendunak Udalean hartu ahal izango du, bertan esaten dioten egunean eta orduan.

Txartel horrek beti ikusgai egon beharko du instalatutako postuan. Esleitutako lekua finkoa eta aldaezina da; horregatik, debekatuta dago lekuz aldatzea, Santurtziko Udalak horretarako baimena eman ezean.

Postua jaiak hasi baino egun bat lehenago muntatzen hasi ahal izango da eta desmuntatzeko lanak jaiak amaitu ondorengo egunera arte luzatuko da.

13.- KALEKO SALTZAILEEN BETEBEHARRAK

Udalak postua festa-gunean instalatzeko baimena emandakoan, esleipendunak honako betebeharrak hauek izango ditu:

- Udalak igorritako baimena azokaren antolatzaileei edota udal agintariei erakustea.
- Oinarrietan eskatzen diren agiri guztiak eskuragarri izatea, langile baimenduek edonoiz egiazta ditzaten.
- Obra eta Zerbitzuetako Arloko langile administratibo, tekniko eta postuaren okupazioa ikuskatzeaz arduratzen diren langileen esanak eta argibideak betetzea.
- Baimenak dirauen bitartean janaria egun guztietan ikusgai izatea salmentarako.
- Udalak emandako arauak eta baldintza-agiri honetan ezarritakoa betetzea.
- Indarrean dauden lan-arauak betetzea (Gizarte Segurantzari buruzkoak, langileak kontratatzeari buruzkoak...).
- Segurtasun-, eta higiene-arauak betetzea.
- Postua zertarako baimendu den, horretarako erabiltzeko
- Instalazioak pertsona guztiei, inolako diskriminaziorik gabe, erabiltzen uztea.

14.- ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Plegu honetan adierazitako betebeharrak ez betetzea arau-haustetzat hartuko da.

Obra eta Zerbitzuen Saileko zinegotzi esku-ordedunak, espedientea egin ondoren, emandako baimena baliogabetu eta postuak zigilatu ahal izango ditu. Horrela, saltzaileei galaraziko die berau erabiltzea, harik eta edozein motatako arazoak konpondu arte; edo betiko, baldin eta baldintza-plegu honetan ezarri diren arauak hautsi badira.

Plegu honetan ezarrita ez dagoenerako atxiki beharko zaio Santurtziko udalerrian kaleko salmenta arautzen duen Ordenantzan eta gaiari ezar dakioken bestelako araudietan adierazitakoari.

15.- BAIMENAREN AMAIERA

Baimena iraungiko da 10. baldintzan adierazitako epea amaitu delako edo hurrengo hauek hautsi direlako: baldintza teknikoak, baimena emateko arazoia izan ziren bestelako baldintzak, klausula hauetan ezarritako arauak edota organo-eskudunak emandako beste arau batzuk. Jarduera erabiltzaileentzat edo oinezkoentzat arriskutsua izateak ere ekar lezake baimena baliogabetzea.